



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EBAZPENA, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendariarena; horren bidez, Irungo (Gipuzkoa) udal-mugartean, RENFEren lantegia kokatuta dagoen kokalekuari dagozkion lurzorua kalitatea ikertzeko azterlanak eta berreskuratze-plana jendaurrean jartzea erabakitzen da.

RESOLUCIÓN del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, por la que se acuerda someter a información pública los estudios de investigación de la calidad del suelo y el plan de recuperación correspondiente al emplazamiento donde se ubica el taller de RENFE en el término municipal de Irun (Gipuzkoa).

Renfe Fabricación y Mantenimiento Sociedad Mercantil Estatal, S.A.k eta ADIF - Alta Velocidad Erakunde Publikoak batera eman diote hasiera, Irungo (Gipuzkoa) udal-mugartean, RENFEren lantegia kokatuta dagoen kokalekuari dagokion lurzorua kalitateari buruzko adierazpen-espeditentari, honako xedapen hauen arabera: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea; eta, lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda ezarri eta lurzoru kutsatuen adierazpena egiteko irizpideak eta estandarrak finkatzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua.

Resultando que Renfe Fabricación y Mantenimiento Sociedad Mercantil Estatal, S.A. y la Entidad Pública Empresarial ADIF - Alta Velocidad han dado de forma conjunta inicio al expediente para la declaración de calidad del suelo correspondiente al emplazamiento donde se ubica el taller de RENFE en el término municipal de Irun (Gipuzkoa), de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, y en el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, por el que se establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados.

Espediente horretan jasota daude baimendutako erakunde batek

Resultando que en dicho expediente constan los estudios de investigación





ekainaren 25eko 4/2015 Legearen II. kapituluaren arabera lurzorua kalitatea ikertzeko egindako azterlanak eta berreskuratze-plana.

Egindako ikerketan egiaztatu denez, eremu batzuetan arriskuen analisis arriskua onartezina dela ondorioztatu da. Horren ondorioz, aipatutako 25eko 4/2015 Legearen 33. Artikuluak xedatutakoa bete behar da. Artikulu horrek honako hau adierazten du: ingurumen-organoak jendaurreko informazioaren izapidea abiaraziko du baldin eta arriskuen analisis etorkizunean eramango den erabilerarako arriskua onartezina dela ondorioztatzen bada.

Halaber, egindako ikerketan egiaztatu denez, eremu jakin batzuetan hidrokarburoen fase librea aurkitu da eta kokalekuan dauden kontzentrazioetako batzuk hondakin arriskutsu gisa katalogatu ahal izango lirateke Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina ordeztu duen 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen 1357/2014 (EB) Erregelaren ezarritakoaren arabera. Eta, beraz, eremu horietarako, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 33. Artikulua aplikatuko litzateke. Artikulu horrek

de la calidad del suelo y el plan de recuperación elaborados por entidad acreditada, de conformidad con lo que se establece en el Capítulo II de la Ley 4/2015, de 25 de junio.

Considerando que de la investigación realizada se deriva que en determinadas zonas el análisis de riesgos concluye que el riesgo es inadmisibile para el uso previsto, y que, por tanto, para las mismas sería de aplicación el artículo 33 de la mencionada Ley 4/2015, de 25 de junio, que establece que el órgano ambiental procederá a someter los estudios de investigación de la calidad del suelo a un trámite de información pública cuando, entre otros supuestos, el análisis de riesgos concluya que el riesgo es inadmisibile.

Considerando que, asimismo, de la investigación realizada se deriva que en determinadas zonas existe fase libre de hidrocarburos y que algunas de las concentraciones presentes en el emplazamiento podrían catalogarse como residuo peligroso de conformidad con el REGLAMENTO (UE) Nº 1357/2014 de la comisión de 18 de diciembre de 2014 por el que se sustituye el anexo III de la Directiva 2008/98/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, sobre los residuos y por la que se derogan determinadas Directivas, por la cual pueden considerarse Residuo Peligroso, y que,



ezartzen du ingurumen-organoak jendaurreko informazioaren izapidea egingo diela lurzorua kalitatea ikertzeko azterlanei, besteak beste, hori gomendatzen duten arrazoi justifikatuak daudenean.

Organo honi dagokio ebazpen hau emateko eskumena, honako hauek ezarritakoarekin bat: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak ezarritakoarekin bat; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Honako hauek ikusi dira: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea; lege hori garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua; lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda ezarri eta lurzoru kutsatuen adierazpena egiteko irizpideak eta estandarrak finkatzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua; Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea;

por tanto, para las mismas sería de aplicación el artículo 33 de la mencionada Ley 4/2015, de 25 de junio, que establece que el órgano ambiental procederá a someter los estudios de investigación de la calidad del suelo a un trámite de información pública cuando, entre otros supuestos se den razones justificadas que así lo aconsejen.

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, y en el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, corresponde a este órgano la competencia para la emisión de la presente Resolución.

Vistos la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, el Decreto 209/2019, de 26 de diciembre, por el que se desarrolla dicha Ley, el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, por el que se establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados y la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y demás



eta, oro har aplikagarri den araudia.
Eta honako hau

normativa de general y especial
aplicación

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Jendaurrean jartzea, ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 20 balioduneko eguneko epean, Irungo (Gipuzkoa) udal-mugaratean, RENFEren lantegia kokatuta dagoen kokalekuari dagozkion lurzorua kalitatea ikertzeko azterlanak eta berreskuratze-plana. Epe horretan, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Bigarrena.- Aurreko artikuluan ezarritakoa betetzeko, dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz).

Halaber, dokumentazioa herritarrek errazago eskura dezaten, espedientea Irungo udalari bidaliko zaio, jendaurreko informazio aldian espedientea erakutsi dezan.

RESUELVO

Primero.- Someter, en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimen oportunas, al trámite de información pública por un periodo de 20 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la fecha de inserción del correspondiente anuncio en la sede electrónica del Gobierno Vasco, los estudios de investigación de la calidad del suelo y el plan de recuperación correspondiente al emplazamiento donde se ubica el taller de RENFE en el término municipal de Irun (Gipuzkoa).

Segundo.- A efectos de cumplimentar lo previsto en el artículo anterior la documentación se encontrará disponible en la sede de la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, calle Donostia-San Sebastián, 1 - 2.^a planta, en Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, en orden a facilitar el acceso de los ciudadanos y ciudadanas a la documentación, el expediente se remitirá al Ayuntamiento de Irun para

su exposición durante el período de información pública.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

**INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL Y ECONOMIA CIRCULAR**

**AITOR ALDASORO ITURBE
INGURUMEN JASANGARRITASUNEN SAILBURUORDEA
EL VICECONSEJERO DE SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL**

(OTSAILAREN 23KO 68/2021 DEKRETUKO LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA/
POR DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA DEL DECRETO 68/2021 DE 23 DE FEBRERO)

(Elektronikoki sinatua / Firmado electrónicamente)